

**GEOEUSKADI
GIDALIBURUA**

BIŞOREAREN



2013

EUSKO JAURLARITZA





















GOBIERNO VASCO

DOKUMENTUA: GeoEuskadi bisorearen gidaliburua




EDIZIO-DATA: 2013


JABEA: Eusko Jaurlaritza.

Edukia

Tresna-barra	5
 Hasierako zooma	5
 Zoom gehiago	5
 Zoom gutxiago	5
 Zoom Leihoa	5
 Mugitu	5
 Aurreko Zooma	5
 Hurrengo Zooma.....	5
 Distantzia neurtu	5
 Azalera neurtu	6
 Arbelara kopiatu	6
 Puntuaren informazioa	6
 Maparen URL-a kopiatu.....	6
 Mapa ezabatu.....	6
 Puntua markatu.....	6
 Laguntza azaldu	7
Mapak.....	7
Geruzen zerrenda	7
Geruza dinamikoak.....	7
 WMS gehitu	7
 GML gehitu	8
 KML gehitu.....	8
 Geruza ezabatu	8

Geruzen menua	8
 Opakotasuna.....	8
 Igo.....	9
 Jeitsi	9
 Zooma Geruzara	9
 Puntuaren informazioa	9
 Editatu.....	9
 Elementuak ikusi	9
 Esportatu	9
Bilaketak	9
Kalea bilatu.....	9
Udalerria bilatu.....	10
Koordenatuetara joan	10
Tresnak	10
Kartografiaren deskarga.....	10
Geruzen edizioa.....	10
 Puntua gehitu	10
 Lerroa gehitu	10
 Poligonoa gehitu.....	11
 Elementua editatu	11
 Elementua hautatu.....	11
 Hautatutakoa ezabatu	11
 Guztia ezabatu	11
 Ezaugarriak gehitu	12
 Ezaugarriak kendu	12

 Ezaugarriak editatu.....	12
 Geruza esportatu.....	12
 geruza sortu.....	12
Geruzak gainjarri	12



TRESNA-BARRA

Badaude bi motatako tresnak, egoera dutenak eta egoerarik gabekoak:

- Egoera dutenak: aktibo daude, eskuz edo automatikoki desaktibatu arte.
- Egoerarik gabekoak: aktibatzean abian jartzen dira eta amaitzean desaktibatu egiten dira automatikoki.



HASIERAKO ZOOMA

Egoerarik gabeko tresna. Aplikazioaren hasierako zoomera itzultzeko balio du.



ZOOM GEHIAGO

Egoerarik gabeko tresna. Maparen barrura zooma egiteko balio du; zoomaren erdialdea, maparen erdialdea izango da.



ZOOM GUTXIAGO

Egoerarik gabeko tresna. Maparen kanpora zooma egiteko balio du; zoomaren erdialdea, maparen erdialdea izango da.



ZOOM LEIHOA

Egoera duen tresna. Mapako eremu batean zooma egiteko balio du, horretarako, eutsi klik sakatuta eta mugitu sagua nahi duzun eremura.



MUGITU

Aplikazioaren tresna lehenetsia da, beste tresna bat ez daukagunean aktibatuta, hori aktibatuta egongo da. Mapan zehar mugitzeko balio du, eutsi klik sakatuta eta mugitu sagua. Saguaren erruleta biratuz gero, mapan zooma egiteko ere balio du.



AURREKO ZOOMA

Egoerarik gabeko tresna. Egon garen zoomaren historia da, eta lehenagoko zoomera itzultzeko balio du.



HURRENGO ZOOMA

Egoerarik gabeko tresna. Egon garen zoomaren historia da, eta hurrengo zoomera joateko balio du.



DISTANTZIA NEURTU

Egoera duen tresna. Mapan distantziak neurtzeko balio du. Egin klik mapan lehenengo puntua ezartzeko, eta jarraitu klik egiten bitarteko puntuak gehitzeko. Bukatzeko egin klik bikoitza. Ezkerreko panelean emaitza erakutsiko da.

- Distantzia guztia: marraztutako linea guztiaren distantzia, metrotan.
- Azkeneko segmentuaren distantzia: azkeneko bi puntuen arteko distantzia, metrotan.



AZALERA NEURTU

Egoera duen tresna. Mapan marraztutako poligono baten area neurtzeko balio du. Poligonoa marrazteko, egin klik mapan lehenengo erpina seinatzeko, eta jarraitu klik egiten erpin berriak ezartzeko. Poligonoa bukatzeko, egin klik bikoitza. Ezkerreko panelean emaitza erakutsiko da.

- Azalera: marraztutako poligonoaren azalera, metro karratutan.
- Ingurua: poligono osoaren ingurua, metrotan.



ARBELARA KOPIATU

Egoerarik gabeko tresna. Leiho berria irekitzen du, eta oraingo mapa erakusten du. ALT+ImprPant sakatuta, mapa aktiboa windows arbelean kopiatuko dugu.



PUNTUAREN INFORMAZIOA

Egoera duen tresna. Maparen puntu baten informazioa erakusten du. Informazio hori, geruza aktiboari dagokiona da. Informazioa ikusteko, egin klik mapako nahi duzun puntuan.



MAPAREN URL-A KOPIATU

Egoera ez duen tresna. Leiho bat agertzen da eta bertan URL parametrizatuta. URL horrek aplikazioaren konfigurazioa adierazten du. Era honetara, daukagun konfigurazioa gorde dezakegu, edo lagun bati bidali, gu ikusten ari garena ikusteko.



MAPA EZABATU

Egoerarik gabeko tresna. Tresna hau, aldi baterako eragiketak ezabatzeko balio du, adibidez, bilaketak (udalerrria, kalea, etab.), neurketak (distantzia, azalera, etab.), puntu bat markatzea, koordenatuetara joatea, ...



PUNTUA MARKATU

Egoera duen tresna. Maparen puntu baten koordenatuak lortzeko balio du. Horretarako egin klik mapan, nahi duzun puntuan. Emaitza hurrengo koordenatu sistemetan erakutsiko da:

- WGS84.
- UTM 30N ED50.
- UTM 30N ETRS89.

Emaitzak arbelean kopia dezakegu: hautatu testua eta CTRL+C edo egin klik saguaren eskuin botoian.

LAGUNTZA AZALDU

Egoerarik gabeko tresna. Laguntza panela erakusten eta ezkututzen du.

MAPAK

GERUZEN ZERRENDA

Geruza estatiko guztiak dituen panela. Geruzak zuhaitz-egituraren agertzen dira, taldeka banatuta. Geruza edo taldea mapan ikusteko (aktibatzeko) bere ezkerreko laukian klik baina ez dugu egin behar. Taldea aktibatzen badugu bere azpiko geruza guztiak ere aktibatuko ditugu. Aldi berean, geruzaren ikusgarritasuna mapan dagoen zoomaren arabera da, hau da, eskala horretan ikusgai ez denean geruzen zuhaitzean grisaxka agertzen da. Taldeen barruan legenda simple eta legenda tematikoa duten geruzak aurkitu ahal ditugu:

- Legenda simple duten geruzetan legenda bakoitza bere aldetik aktibatu eta desaktibatu ahal da.
- Legenda tematikoa duten geruzetan taldeka aktibatzen dira, hau da, ez dira bata bestearekiko independenteak.

GERUZA DINAMIKOAK

Aplikazioaren geruza dinamiko guztiak dituen panela. Han geruza horien ikusgarritasuna aktibatu eta desaktibatu ahal izango dugu, eta baita ezabatu eta gehitu geruzak ere. Ikusgarritasuna ezkerreko laukiaren bidez kontrolatzen da. Geruza ezabatzeko, horren gainean klik eginez hautatu eta gero "Ezabatu" botoia sakatu behar da. Geruza gehitzeko "Gehitu" botoia sakatu eta gero eutsitako formatuen artean bat hautatu behar da. Hona hemen geruzen eutsitako formatuak:

- WMS (Web Map Service)
- GML (Geography Markup Language)
- KML (Keyhole Markup Language)

Geruza dinamikoek aukera gehiago dute eskuinaldean agertzen den laukiaren gainean sagua pasatzean (Ikusi "Geruzen menua")

WMS GEHITU

Aplikazioan WMS geruza gehitzeko tresna. Horretarako tresnan klik egin behar da eta leihoa agertuko da. Han WMS geruzaren url-a sartu edo zerrendako bat hautatu behar da. "Geruzak lortu" sakatzean geruzen zerrenda agertuko da. Aplikazioak ondorengo aukerak ematen ditu gehitzeko: geruza bakarra, bata bestearekiko independenteak diren zenbait geruza edo zenbait geruza bakarra izango balira bezala:

- Geruza bakarra gehitzeko, hori hautatu eta izena idatzi (aukerakoa) eta "Gehitu" sakatu behar izango dugu.
- Zenbait geruza gehitzeko, "Ctrl" teklaturaren sakatuta eutsi eta geruzen gainean klik egin eta gero "Gehitu" sakatu. Izena jartzen badiegu geruza bakarra izango balira bezala gehituko dira. Ez

badugu izenik jartzen, geruzak bereizita gehituko dira.

GML GEHITU

Aplikazioan GML geruza gehitzeko botoia. Leioa agertuko da eta bertan gure ekipoan dagoen fitxategiaren kokapena zehaztu eta aldi berean dagokion erreferentzia-sistema ere adierazi beharko dugu:

- WGS84
- UTM 30N ED50
- UTM 30N ETR89

KML GEHITU

Aplikazioan KML geruza gehitzeko botoia. Leioa agertuko da eta bertan gure ekipoan dagoen fitxategiaren kokapena zehaztu eta aldi berean dagokion erreferentzia-sistema ere adierazi beharko dugu:

- WGS84
- UTM 30N ED50
- UTM 30N ETR89

GERUZA EZABATU

Zerrendako eta mapako geruza dinamikoa ezabatzen duen botoia. Horretarako geruza hautatu (horren gainean sakatuz) eta botoia sakatu behar izango dugu.

GERUZEN MENUA

Aplikazioaren geruza dinamiko eta estatikoen menua. Hori agertzeko, geruza estatiko eta dinamikoen zerrendako geruza baten gainean pasatzean eskuinaldean agertzen den ikonoan klik egin beharko dugu.



Menuaren tresnak aktibo izango dira soilik geruza ikusgai denean eta geruza horretarako tresna eskura denean.

OPAKOTASUNA

Geruzaren opakotasuna-barra %0tik-%100era. Opakotasuna aldatzeko egin klik eta mugitu barra nahi duzun portzentaira.

**IGO**

Egoerarik gabeko tresna. Geruza dinamikoen panelaren tresna da, hautatutako geruza dinamikoa zerrendan postu bat igotzeko balio du. Era honetara, mapan geruza bat beste baten gainean jarri ahal izango dugu.

**JEITSI**

Egoerarik gabeko tresna. Geruza dinamikoen panelaren tresna da, hautatutako geruza dinamikoa zerrendan postu bat jaisteko balio du. Era honetara, mapan geruza bat beste baten gainean jarri ahal izango dugu.

**ZOOMA GERUZARA**

Egoerarik gabeko tresna. Hautatutako geruzaren eremu handieneraino zooma egiteko balio du.

**PUNTUAREN INFORMAZIOA**

Egoera duen tresna. Maparen puntu baten informazioa erakusten du. Informazio hori, hautatutako geruzari dagokiona da. Informazioa ikusteko, egin klik mapako nahi duzun puntuan.

**EDITATU**

Egoerarik gabeko tresna. Tresna hau, GML/KML edizio panela irekitzen du eta hautatutako geruza editatu ahal izango dugu.

**ELEMENTUAK IKUSI**

Egoerarik gabeko tresna. Tresna hau, hautatutako GML/KML geruzaren informazioa erakusten du, behe aldeko panelean. GML/KML eskemaren ezaugarri bakoitzeko zutabe bat eta GML/KML elementu bakoitzeko ilara bat erakusten du.

**ESPORTATU**

Egoerarik gabeko tresna. Hautatutako GML/KML geruza fitxategi batera esportatzen du. Fitxategiaren formatua GML edo KML izan daiteke, eta WGS84, UTM 30N ED50 edo UTM 30N ETRS89 koordinatu sistemak hautatu ahal izango ditugu.

BILAKETAK**KALEA BILATU**

EAEko kaleak eta atariak bilatzeko:

- Hautatu Probintzia (beharrezkoa), Udalerria (aukerakoa) eta Herria (aukerakoa)
- Idatzi gutxienez aurkitu nahi duzun kalearen 3 letra.
- Hautatutako irizpideekin bat datozen kaleak agertuko dira zerrendan.

- Kalea aukeratzean ataria ere aukera dezakezu.
- Sakatu “Atala aurkitu” edo “Portala aurkitu” eta mapa automatikoki hautatutako kokapenera joango da eta dagokion elementua erakutsiko du.

UDALERRIA BILATU

Udalerrri bat kokatzeko, zerrendetan probintzia eta udalerrriaren izena hautatu behar dira. “Aurkitu” sakatzean mapa hautatutako udalerrira mugituko da.

KOORDENATUETARA JOAN

Mapan koordenatuak (X,Y) kokatzeko tresna. Koordenatu-sistema hautatu, X eta Y koordenatuak sartu eta “Bilatu” sakatu behar duzu.

TRESNAK

KARTOGRAFIAREN DESKARGA

Maparen kartografia deskargatzeko balio du, horretarako:

- Hautatu deskarga-orrialdeak.
- Aktibatu geruza, ikusgai geratzeko.
- Aktibatu deskargarako tresna eta egin klik maparen gainean.
- Beheko aldean panela zabalduko da eta deskargatzeko fitxategiak erakutsiko ditu.

GERUZEN EDIZIOA

GML eta KML formatuko geruza dinamikoen edizioa:

- Hautatu editatu nahi duzun geruza (geruza dinamikoen zerrendan agertu behar da) edo sortu beste geruza bat.
- Erabili behar dituzun tresnak.
- Edizioa amaitzean zure ekipora esportatu ahal izango duzu geruza.



PUNTUA GEHITU

GML/KML edizio panelaren egoera duen tresna. Mapan puntuak marrazteko balio du, horretarako geruza bat hautatu eta gero, mapan klik eginez puntuak marrazten dira. Puntu anitz marraztu ditzakegu.



LERROA GEHITU

GML/KML edizio panelaren egoera duen tresna. Mapan lerroak marrazteko balio du, horretarako geruza bat hautatu eta gero, egin klik mapan lehenengo puntuak ezartzeko, jarraitu klik egiten bitarteko puntuak seinatzeko, eta egin klik bikoitza lerroa bukatzeko.



POLIGONOA GEHITU

GML/KML edizio panelaren egoera duen tresna. Mapan poligonoak marrazteko balio du. Poligonoa marrazteko geruza hautatu eta gero, egin klik mapan lehenengo erpina seinalatzeko, eta jarraitu klik egiten erpin berriak ezartzeko. Poligonoa bukatzeko, egin klik bikoitza.



ELEMENTUA EDITATU

GML/KML edizio panelaren egoera duen tresna. Hautatutako geruzaren elementuen geometriak mugitu eta editatzeko balio du.

- Tresna hau erabiltzeko, egin klik mugitu edo editatu nahi dugun elementuaren gainean. Orduan ikusiko dugu kolorea aldatu duela eta bere erpinen puntuak azaldu direla.
- Elementu guztia mugitzeko, egin klik erdian duen puntuaren gainean, eutsi sakatuta, eta mugitu sagua nahi duzun lekuraino.
- Puntu desberdinen geometria editatzeko, egin klik nahi duzun puntuaren gainean, eutsi sakatuta, eta mugitu sagua nahi duzun lekuraino. Puntua lekuz aldatuko da.



ELEMENTUA HAUTATU

GML/KML edizio panelaren egoera duen tresna. Hautatutako geruzaren elementuak aukeratzeko balio du, horien ezaugarriak ikusteko edo horiek ezabatzeko.

- Elementu bat hautatzeko, egin klik horren gainean.
- Hautatu eta gero, elementua ezabatu ahal izango dugu “Hautatuak ezabatu” tresna erabiliz, edo horren ezaugarriak ikusi ahal izango ditugu beheko aldean dagoen panelean.
- Elementu bat baino gehiago hautatu ditzakegu klik eginez eta sagua aske gabe mugituz. Horrela, hautatutako elementu guztiak ezabatu ahal izango ditugu, eta behe aldeko panelak erakutsiko du mapan hautatutako azken elementua.
- Elementuak deshautatzeko bi era daude: lehenengoa, mapan elementurik ez dagoen lekuan klik eginez (horrela guztiak deshautatuko ditugu), eta bigarrena, deshautatu nahi dugun elementuaren gainean CTRL+klik sakatuz.



HAUTATUTAKOAZ EZABATU

GML/KML edizio panelaren egoera duen tresna. Mapan hautatutako elementuak ezabatzeko balio du. Elementu horiek ezin izango dira berreskuratu. Tresna hau erabiltzeko, lehenago elementuak hautatu behar izango ditugu. Ikusi “Elementua hautatu” tresna.



GUZTIA EZABATU

GML/KML edizio panelaren egoera duen tresna. Tresna hau, hautatutako geruzaren elementu guztiak ezabatzeko balio du. Elementuak ezin izango dira berreskuratu.



EZAUGARRIAK GEHITU

GML geruzen eskema edizio panelaren tresna. Hautatutako GML geruzaren elementuei ezaugarriak gehitzeko balio du. Leiho bat agertuko da, eta hor ezaugarriaren izena (derrigorrezkoa), eta nahi baduzu, lehenetsitako balioa ezaugarriarentzat (aukerakoa) sartu beharko duzu. Lehenetsitako balioa, oraingo elementuei baino ez zaie emango, ez etorkizunean gehitutakoei. Ezaugarria gehitzeko, “Gehitu” sakatu, eta eremu gehiago gehitu ahal izango duzu. Bukatzeko, sakatu “Bukatu”.



EZAUGARRIAK KENDU

GML geruzen eskema edizio panelaren tresna. Hautatutako GML geruzaren elementuei ezaugarriak kentzeko balio du. Leiho bat agertuko da eta hor GML geruza dituen ezaugarri guztiak erakutsiko dira. Horien artean hautatu kendu nahi dituzun ezaugarriak, eta sakatu “Ezabatu” kentzeko. Ezabatutakoak ezin izango dira berreskuratu. Ezaugarri bat baino gehiago ezabatu ahal izango duzu. Bukatzeko, sakatu “Bukatu”.



EZAUGARRIAK EDITATU

GML geruzen eskema edizio panelaren tresna. Aplikazioaren behe aldean dagoen GML ezaugarrien edizio panela irekitzen du. Panel honek GML geruza aktiboaren elementuen ezaugarrien balioa aldatzeko balio du. Elementu baten ezaugarriaren balioa editatzeko, egin klik bikoitza aldatu nahi duzun balioaren gainean eta orduan balio berria idatzi ahal izango duzu. Mapako elementuren bat bilatu nahi baduzu panelaren zerrendan, “Elementua hautatu” tresna erabili dezakezu mapan elementua hautatzeko eta panelaren zerrendan dagokion elementua hautatuta agertuko da, editatzeko prest. Alderantziz, panelaren zerrendako elementuren bat mapan bilatu nahi baduzu, hautatu elementua zerrendan eta mapan automatikoki hautatuta agertuko da.



GERUZA ESPORTATU

Hautatutako geruza fitxategi batera esportatzeko tresna. Fitxategiaren formatua GML edo KML izan daiteke, eta kartografia koordenatu-sistema WGS84, UTM 30N ED50 edo UTM 30N ETRS89.



GERUZA SORTU

Geruza dinamiko berri a eta hutsik sortzeko balio du. Agertzen den leihoan geruzaren izena sartu behar duzu. Besterik adierazi ezean, GML formatuko geruza dinamikoen zerrendan gehituko da. Geruza hau editatu eta esportatu ahal da.

GERUZAK GAINJARRI

Maparen gainean oinarri-geruza gainjartzeko tresna:

1. Hautatu gainjarri nahi duzun geruza
2. Aukeratu leihoaren tamaina: txikia, ertaina edo handia.
3. Aktibatu gainjartzeko tresna. Mugitzeko, sakatu maparen gainean agertuko den leihoan eta arrastatu.

Tresna honekin batera beste tresna batzuk ere aktibatu ahal dira, hau da, maparen gainean zooma egin, mapatik mugitu, etab. egin daiteke.